



**CAPDEVILA, PACO**

AIZKORRI - 1999/12

J ONE, JON ETA TXINTXON

Salneurria: 2,75 €



Izenburua: 1001 ipuin

Egilea: Lila Prap

Argitaletxea: Ibaizabal


Argitalpen data: 2007

Itzultzailea: Aitor Arana

Orri kopurua: 30 orrialde

Laburpena: Liburu jostailu bat da honakoa: orrialde bakoitzean narrazio jolas bat aurkezten da, ipuin oso ezagunen egiturak manipulatu eta hainbat ipuin berri sortzeko aukera eskainiz. Autonomia minimoarekin erabiltzeko, irakurketako autonomia gutxieneko bat izan behar da. Hala ere, modu kolektiboan erabil daiteke ikasgela batean, zortzi urtetik aurrera. Marrazkiek osatzen dute liburua eta hainbat iradokizun gehitu ipuin bakoitzari. Orrialde bakoitzeko ilustrazio handi bat agertzen da, oso nabarmena eta kolore bizikoa.

Adina: 8tik gora



Izenburua: 101. Pirata

Egilea: Susana Rafart

Argitaletxea: Giltza

Argitalpen data: 1995

Itzultzailea: Karlos Santisteban

Ilustratzailea: Antonia Cortijos

Bilduma: Tukan Urdina

Orri kopurua: 58 orrialde

Laburpena: Txomin pirata izateko jaio da, jakina! Horregatik, egunero aritzen da etsaiei jarriko dizkien aurpegierak ispilu aurrean lantzen. Hala ere, herrian ez dago lekurik 100 piratarentzat baizik, eta lanpostu guztiak daude hartuta. Konformatuko al da Txomin bere zorteaz?



Izenburua: 27 ipuin zopa hartzeko

Egilea: Ursula Wolfel

Argitaletxea: Alberdania

Argitalpen data: 2005

Itzultzailea: Lola Erkizia, Inazio Mujika Iraola

Bilduma: Osinberde saila

Orri kopurua: 64 orrialde

Laburpena: Zoparik jan ez duen umeari amak zopa har dezan kontatzen hasten den kontakizun laburren bilduma da. Kontakizunak laburrak dira, originalak, egitura xumea dutenak eta edozein momentutan kontatzekoak. Ipuinotan, orotariko animaliak dira protagonista.



Izenburua: 33+3 urte kontu kontari

Egilea: Txotxongilo taldea (Enkarni Genua-Manolo Gomez)

Argitaletxea: Erein

Argitalpen data: 2007

Orri kopurua: 91 orrialde

Laburpena: Txotxongilo taldeak urteetan egindako ipuinak bildu dituzte liburu honetan. Atal bakoitza hainbat modutan kontatuta dago: abesti, olerki, komiki, ipuin... dena nahastuta dator, jenero eta estilo anitzak erabiliz. Gainera, ipuinarekin lotuta, zenbait pertsonaren iritzi eta komentarioak azaltzen dira, zenbaitetan Txotxongilo taldearen ibilbidearen adierazle, beste zenbaitetan haien lan eta emaitzen testigantza hartuz. Taldearen ibilbidean bidelaguna izan duten Jesus Lukasen ilustrazioak dira liburua osatzen dutenak.

Adina: 8tik gora



# 90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura

MANU LOPEZ GASENI  
XABIER ETXANIZ ERLE



Izenburua: 90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura

Egilea: Manu Lopez Gaseni eta Xabier Etxaniz Erle

Argitaletxea: Pamiela

Argitalpen data: 2005

Laburpena: Euskal HGL urte askotan zehar hurbiletik jarraitzearen, eta zatikako azterketa ugari egitearen ondorioz, gaiari era sistematiko eta oro hartuta heltzeko garaia dela iruditu zaigu. Aipatutako azterketetatik, orobat, geure gaur eguneko HGLren ibilbidea ikusi ahal izan dugu: 70eko urteetan nekez abiatuta eta 80ko hamarkadako bultzada instituzionalari esker indartuta, 90eko hamarkada jo ahal izan dugu euskal HGLren behin-betiko finkatzearena. Hori dela eta, hamarnakako mugaketek dituzten arriskuez jabetuta ere, muga horietako euskal HGL aztertu nahi izan dugu, sendotze gure ustez iraunkorraren klabeen bila.



Izenburua: A zer danbatekoa!

Egilea: Enric Bayé

Argitaletxea: Desclee

Argitalpen data: 1999

Itzultzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu

Ilustratzailea: Mercé Aránega

Bilduma: Epotxak eta Erraldoiak (sail laranja)

Orri kopurua: 79 orrialde

Laburpena: Aurorak ez zituen begiak hainbesteko indarrez itxiko, ez zuen burua eskuez babestuko ere, eta -egia esan- ez zuen izango ikararik DANBATEKO! ikaragarri hura entzun zuenean bezalakorik. Kementsua izan beharra zeukan!: eta begiak zabal-zabal egin zituen! Aurorak eroritako liburua ikusi zuen eta liburuaren azaletik milaka eta milaka letra eta marrazkiak zeuden barreiatu... Letra-multzo baten azpian halako zera bat ari zen mugitzen... zer zera arraina! Irten nahian zebilen norbaiten burua zen...



Izenburua: A zer kuxidadeko bahiketa

Egilea: Josep Gregori

Argitaletxea: Elkarlanean

Argitalpen data: 1998

Itzultzailea: Nerea Atxega

Ilustratzailea: Javi Erostarbe Garitano

Bilduma: Xaguxar

Orri kopurua: 160 orrialde

Laburpena: Albert, Mikelen adiskidea, bideojokoen erdi pirata da eta badu trebetasun berezi bat: edozein saltsatan muturra sartzekoa. Albert kezkatu dago, Italiara joan behar baitu, anai-arrebekin, ahaideen etxean egun batzuk pasatzera. Ordenadorerik gabe, adiskiderik gabe eta anai-arrebekin, bidaiak martirioa izateko itxura guztia du. Hori dela eta, Mikel berarekin joateko modua asmatzen du. Azkenean, espedizioa bi adiskeek eta Annak, Alberten arrebak, osatuko dute. Bidaiako hegazkina bahitu egiten du Zobawaren Askapen Mugimenduko talde batek. Albertek, bere maniekin, egoera are gehiago lardaskatzea lortzen du.



Izenburua: Adi seinaleari

Egilea: Paco Capdevila

Argitaletxea: Aizkorri

Argitalpen data: 2001

Ilustratzailea: Paco Capdevila

Bilduma: Jone, Jon Txintxon

Orri kopurua: 24 orrialde

Laburpena: Bilduma honek material bikaina eskaintzen die irakasleei eta gurasoei, haurrengandik oso hurbil dauden hainbat interesgune modu globalizatuan garatzen baititu. Beraz, oso lagungarria izango zaie hezkuntza lanetan.

Oinarrizko kontzeptuak oso modu atseginean aurkezten dira, baita esanguratsuan ere, eta haur hezkuntzan lantzen diren hiru esperientzia eremuak landuz.



Izenburua: Adio, adio

Egilea: Pello Añorga Lopez

Argitaletxea: Elkar

Argitalpen data: 2003

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Bilduma: Birundan

Orri kopurua: 36 orrialde

Izenburua: Adio, Jonas


Egilea: Juan Kruz Igerabide Sarasola

Argitaletxea: Aizkorri

Argitalpen data: 2007

Ilustratzailea: Mikel Valverde Tejedor

Bilduma: Mendi sorgindua



Izenburua: Adreilu lapurra

Egilea: Fernando Aranburu

Argitaletxea: SM

Argitalpen data: 1999


Itzultzailea: Gerardo Markuleta

Ilustratzailea: Asun Balzola

Bilduma: Baporea

Orri kopurua: 64 orrialde

Laburpena: Goiz batez, esnatzerakoan, Mariluz Gartziaren herrikideek sekulako disgustua hartu dute. Herriko etxeetako ia horma guztiei adreiluren bat falta zaie. Nork lapurtu ote ditu?



Izenburua: Adrian Moleren egunkari ezkutua

Egilea: Sue Townsend

Argitaletxea: Elkarlanean

Argitalpen data: 1992  
orrialde

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Bilduma: Branka Orri kopurua: 244

Laburpena: Adrian Mole ia hamalau urteko mutikoa da egunkari bat idazten hasten denean, urte berriarekin batera. Egunkari honen bitartez jasoko dugu Adriani eta bere inguruari gertatzen zaionaren berri: “intelektuala” izateko bere saioak, bere Pandora maitearekiko harremanak, gurasoen haserreak eta banaketa, aitaren lanpostu-galtzea... Baina ez gaztetxoaren historietan sarritan agertzen den dramatismoaz, izugarritzko ironia politez baizik. Umore ingelesaren eredu biribilik nahi baldin bada, hauxe duzu bat.



Izenburua: Ahate pobreen urmaela

Egilea: Fina Casalderrey

Argitaletxea: Giltza

Argitalpen data: 1998


Itzultzailea: Josu Lartategi

Ilustratzailea: Teo Puebla

Bilduma: Tukan Urdina

Orri kopurua: 165 orrialde

Laburpena: Noemak gauza asko ikasi du aitonarekin, aitona jakintsua delako. Eta txapeldun handia ere bada, baita pirata ere. Noema eta aitonari hiltzen jolastea gustatzen zaie, oso erraza da eta.



Izenburua: Ahulerio

Egilea: Pello Añorga Lopez

Argitaletxea: Elkar

Argitalpen data: 2004

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Bilduma: Birundan